

BILBOKO UDALAK BILBOKO FAMILIAK ANIMATZEN DITU "OPORRAK BAKEAN" PROGRAMAREKIN BAT EGITERA ETA 2026KO UDAN ADINGABE SAHARAR BAT HARTZERA

- Ekimen honen bidez, Tindufeko kanpamenduetatik datozen saharar haurrek oporrez goza dezakete ingurune seguru batean.
- Bilboko Udalak eta entitate laguntzaileek familiei laguntzen diete prozesu osoan zehar, etengabeko babesa emanez harreraren aurretik, bitartean eta ondoren.

(Bilbo, 2026ko urtarrilaren 16a).- **Bilboko Udalak** udalerriko familiak animatzen ditu uda honetan **Oporrak Bakean-Vacaciones en Paz** programan parte hartzera. Ekimen solidarioa da, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu-kanpamenduetatik udan datozen ume sahararrak etxean hartzeko.

Programa honek aukera ematen die adingabeei **ingurune seguru batean oporrez gozatzeko**, basamortuko muturreko klimatik urrun, bai eta azterketa medikoak, elikadura orekatua eta hezkuntza- eta aisialdi-jarduerak jasotzeko ere. Aldi berean, esperientzia aberasgarria da harrera-familientzat eta komunitate osoarentzat.

Programa honetan parte hartzeko, **ez da beharrezkoa esperientzia izatea**, ez eta familia-egoera jakin bat ere. Bilboko Udala eta entitate laguntzaileak **familiekin daude prozesu osoan zehar, etengabeko babesa emanez harreraren aurretik, bitartean eta ondoren**.

Iñigo Zubizarreta Giza Eskubide, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Saileko zinegotziak adierazi duenez, "*Oporrak Bakean* ez da oporraldi soil bat: elkartasun-keinu bat da, giza lotura iraunkorrak sortzen dituen eta hurrei beren etorkizuna positiboki markatuko duten esperientziak bizitzeko aukera ematen diena".

Saharar herriak 50 urte daramatza errefuxiatu-kanpalekuetan bizitzen, munduko basamortu idorrenetako batean, beren lurrera itzultzeko aukerarik gabe. Kanpaleku horietan **14 urtetik beherako 56.000 adingabe** bizi dira. Haietako **% 30ek hazkunde-defizita** du, klima- eta elikadura-baldintza gogorren ondorioz. "Oporrak Bakean" eta antzeko programei esker, umek esperientzia asegarri bat bizi dezakete, euskal familiekin loturak sortuz eta bi herrien arteko harremana indartuz.

Uda honetan Saharako adingabe bat hartu nahi duten familiek informazio gehiago eskuratu eta zalantzak argitu ditzakete www.oporrabakean.eus webgunean edo udal-telefonoan (944204353), **2026ko urtarrilaren 30a baino lehen**.

"Oporrak Bakean" ekimenaren bidez, **Bilbok** elkartasunarekin, nazioarteko lankidetzarekin eta Saharako haurren eskubideen defentsarekin duen konpromisoa berresten du.

SARE SOZIALAK:

- BILBOKO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBO, KULTURARTEKO HIRIA: [FACEBOOK](#) | [X](#)
- BILBO SOLIDARIOA: [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO ANIMA A LAS FAMILIAS BILBAÍNAS A UNIRSE AL PROGRAMA “OPORRAK BAKEAN” Y ACOGER A UN MENOR SAHARAUI DURANTE EL VERANO 2026

- A través de esta iniciativa, niños y niñas menores saharauis procedentes de los campamentos del Tinduf pueden disfrutar de unas vacaciones en un entorno seguro.
- El Ayuntamiento de Bilbao y las entidades colaboradoras acompañan a las familias durante todo el proceso con un apoyo continuo antes, durante y después de la acogida.

(Bilbao, a 16 de enero de 2026).- El **Ayuntamiento de Bilbao** anima a las familias del municipio a participar este verano en el programa **Oporrak Bakean-Vacaciones en Paz**, una iniciativa solidaria que permite acoger durante los meses estivales a niños y niñas saharauis procedentes de los campamentos de refugiados de Tinduf (Argelia).

Este programa ofrece a los menores la oportunidad de **disfrutar de unas vacaciones en un entorno seguro**, lejos de las extremas condiciones climáticas del desierto, así como de acceder a revisiones médicas, a una alimentación equilibrada y a actividades educativas y de ocio. Al mismo tiempo, supone una experiencia profundamente enriquecedora para las familias de acogida y para toda la comunidad.

Para participar en este programa, **no es necesario tener experiencia previa** ni una situación familiar concreta. El Ayuntamiento de Bilbao y las entidades colaboradoras **acompañan a las familias durante todo el proceso y ofrecen apoyo continuo antes, durante y después de la acogida**.

*“Oporrak Bakean es **mucho más que unas vacaciones**: es un gesto de solidaridad que crea lazos humanos duraderos y permite a estos menores vivir experiencias que marcarán positivamente su futuro”, señala Iñigo Zubizarreta, concejal del Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad.*

El pueblo saharauí lleva 50 años sobreviviendo en campamentos de personas refugiadas ubicados en uno de los desiertos más áridos del mundo y sin poder volver a su tierra. En estos campamentos residen **56.000 menores de 14 años y de los cuales el 30% sufre déficit de crecimiento** a causa de las duras condiciones climáticas y de alimentación. Gracias a programas como “Vacaciones en Paz”, estos menores pueden vivir una vivencia significativa, creando lazos con familias vascas y fortaleciendo la relación entre ambos pueblos.

Las familias interesadas en acoger a un menor saharauí este verano pueden obtener más información y resolver sus dudas en la web: www.oporrakbakean.eus o en el teléfono municipal: 944204353, **antes del 30 de enero de 2026**.

Con iniciativas como Oporrak Bakean, **Bilbao reafirma su compromiso con la solidaridad, la cooperación internacional y la defensa de los derechos de la infancia saharauí.**

REDES SOCIALES:

- BILBAO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBAO CIUDAD INTERCULTURAL: [FACEBOOK](#) | [X](#)
- BILBAO SOLIDARIA: [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)